

# BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

## Euskara ikasgelatik kanpo ateratzeko saioak

Euskara ikasgeletan sartuz joan den neurrian argi geratu da eskola ez dela nahikoa giro euskalduna lortzeko. Hori dela eta, euskara familiaren eta eskolaren esparruetatik ateratzeko ahaleginei ekin zaie.

- Euskal Herriko ikastolak eta eskola asko aspaldi hasi ziren jolas orduetan, eskolarako bidaietan, etab. euskararen erabilpena bultzatzeko egitarauak lantzen.

- Herrietan zehar euskara sustatzeko sortu diren taldeak ere hasi dira ekintza bereziak antolatzen: euskal bideo eta filme emanaldiak, ludotekak, udalekuak, kirola euskaraz eta koadrilen arteko jarduna euskaraz bultzatzeko hitzarmenak, etab.

- Euskal irratiek eta telebistek saio bereziak dituzte umei zuzenduta: lehiaketak, marrazki biziak, filmeak, umeek egindako irratsaioak, etab. Azken aldi honetan ETBko lehen kateak sortu duen *Superbat* klubak aipamen berezia merezi du. *Superbatek* bultzatuta, urtean hainbat filme arrakastatsu euskaratuko dira eta herrietako zine aretoetan emango. *Hara nor dabilen hizketan* filmearen hirugarren atala izan da esperientzia honen lehena.

- Euskal Herriko zenbait udal ere, euskara kaleratzeko ekintzak antolatzen hasi da aspaldi honetan. Horrela, tailerrak, udaleku irekiak, pertsona ezagunen zirkuitua, euskarazko ikastaroak gurasoentzat, antzerkia, zinema eta bideo emanaldiak, umeak euskarazko eruedetan matrikulatzeko kanpainak, etab., antolatu dituzte.

- EAEko foru aldundiek dirulaguntzak banatzen dituzte gizartean sortutako proiektu interesgarrienetakoan artean.

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ere lagundu egiten du euskara bultzatzeko ahaleginetan, antzerkia, bertsogintza, kanta eta

ikasgelaz kanpoko ekintzetan. Hala ere, umeen artean euskararen erabilpena areagotzeko barnetegi sarea sortu zuen 1985ean. Gaur egun lau dira barnetegiak: Plentziakoa (goi zikloko B eredukoentzat), Elgoibarkoa (D eredukoentzat), Alkizakoa (erdi zikloko B eredukoentzat) eta Gaztelukoa (A eredukoentzat). Urte osoan zehar daude irekita eta beren helburu nagusia etxeko eta kaleko erdal giroan bizi diren umei euskal giro aberatsa ezagutzeko eta bertan euskaraz bizitzeko aukera eskaintzea da. Barnetegi bakoitzean lau irakasle ari dira lanean. Urtean 3.000 ikasle igarotzen dira barnetegi hauetatik, astebeteko edo bi asteko egonaldietan.

Hainbat material argitaratu dute, azkena, *Euskal girotze barnetegiak*.



*Bideo antzerkia eta beste ekintza asko lantzen dira barnetegietan.*

# Felipe Lizaso, euskarazko hitz gurutzatuen aita

Gutxi jakingo dute euskarazko lehen hitz gurutzatuak Burgosko espetxean egin zirela gerraostean eta haien aita Felipe Lizaso, 86, *Itxarkundia* batailoiko komandantea izan zela.

Orion jaioa, bederlatzi urterekin Errenteriar joan zen familiarekin. Gerra zibilak Errenterian harrapatu zuen eta euskal frontea jausi zenean atxilotu, heriotz zigorrera kondenatu eta espetxez espetxe eraman zuten.

Burgosko presondegian ia zazpi urte egin zituen. Zenbait lagunengatik artean *Espetxean* orria argitaratzen hasi ziren, gartzelaratuengatik artean banatzeko. Orri horietan argitaratu zituzten lehen hitz gurutzatuak. Felipe Lizaso, Patxi Urretabizkaia eta Koldo Mitxelenarentzat, hitz gurutzatuen egileentzat alegia,



Felipe Lizaso

euskarazko gurutzegramak denborapasa eta dema ziren.

Espetxetik irtendakoan Errenteriatik gutxienez 250

kilometrotara bizitzera derrigortu zuten arren, euskarazko hitz gurutzatuak egiteari ekin zion berriro. Urte haietan *Zeruko Argian* argitaratu zituen.

Deian ere ia hamasei urtez argitaratu ditu hitz gurutzatuak, beti musutruke. Birritan kobratu du, ordea. *Madrilgo Quiz* aldizkariak gaztelaniaz, katalanez eta euskaraz argitaratu zituen aldi bietan. "Zenbat

ordainduko zidaten galdetzerakoan, ordaintzekotan katalanez adina ordaintzeko eskatu nien eta ondo ordaindu zidaten, alajaina!"

Osasunez ondo ez dabilelako ez du hitz gurutzatu gehiago egingo. Hala ere, gertutik jarraitzen ditu bere ondorengoek egindakoak.

## Normalkuntzaindia

Iñaki Arrutik eta Fernando Muniozguerenek, Lasarte-Oriako eta Eibarko euskara arduradunek hurrenez hurren, atentzioa eman duen proposamena luzatu zuten urrian Arrasaten egin ziren Herrietako Euskara Elkarteei buruzko Jardunaldietan: Normalkuntzaindia izeneko erakundea sortzea, alegia.

Euskaltzaindia euskara landu eta zaintzeko sortu zen bezala, euskararen statusa eta gizarteratze lanak zuzenduko lituzkeen erakundea izango litzateke Normalkuntzaindia. Euskara berreskuratzeko egin beharreko ahalegin eta lan guztiak norabide batean jarriko lituzke, euskaltzale guztion elkarlana bultzatuz.

Idea ezagutarazten ari dira orain. Ondoren, Koldo Mitxelenak euskararen batasunean izan zuten arduraren antzekoa beteko lukeen taldea osatuko lukete, proiektua abian jartzeko.

**IKA euskaltegiek bi liburu** argitaratu dituzte goi mailako ikasleentzako. EGA Ikaslearen Liburu I eta II da lehena. EGA agiria atera nahi duten ikasleentzat eta euskara sakondu nahi dutenentzat egina. Esaera Zuhur eta Zahar da bigarren liburuaren izenburua. Esaera zaharrez, esamoldez eta bapateko itzulpenez josita datoz liburu honetako ariketak.

**Hiztegi informatikoa.** Ordenadorean edozein testu prozesatzaile erabiltzen ari zarela euskarari buruzko zalantzak datozkizula burura? Erabiltzen ari zaren aplikaziotik irten behar barik, Aurten bai elkarteak plazaratu duen Hiztegi informatikoa jarrita baldin badaukazu, lasai egin dezakezu kontsulta. 20.000 sarrera baino gehiago ditu eta Administrazio hiztegiarekin lotuta dago.

**Euskaltzaindiaren 1994rako diruak.** Abenduaren 22an Euskaltzaindia eta EAEko eta Nafarroako herri agintarien artean eratuak Jarraipen batzordea bildu zen Gasteizen. 1989an euren artean sinatu zen hitzarmenari jarraituz, 1994an Euskaltzaindiak 174.144.017 pezeta jasoko ditu herri agintariengandik, aginduta dituen lanei jarraipena eman diezaiei.

**Zinea euskaraz zinematokietan.** Hara nor dabilen hizketan filme ospetsuaren hirugarren zatia euskaratu egin da eta erdarazko bertsiorekin batera Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean estrenatu da. Filme hau euskaratzeko ekimena ETB 1eko Superbat klubetik sortu da. Jarraian Euskal Herriko herrietara eraman nahi dute. Urtean bost bat filme euskaratu eta antzokiratu nahi dituzte.

# Euskararen statusaren alorreko bekak erabakita

HPINek jakitera eman du euskararen statusaren alorreko bekak nori eman zaizkien. Gogoratu beka bakoitza 500.000 pezeta hornitua dagoela eta zortzi hilabeteko iraupena duela.

1. "EAEko ikasleek Batxilergotik unibertsitatera igarotzean egiten duten hezkuntzako hizkuntza ereduaren hautaketa...". Egileak: Leire Ugarte, Itziar Arruti, Ainhoa Igartua eta Leire Lopez.

2. "Sare sozialak, bizitasun etnolinguistikoa eta euskararen jabetza eta erabilpena". Lorena Gil de Monteseke egingo du.

3. "Enpresa munduko euskararen normalkuntza". Egileak: Juan Elorriaga eta Gizane Urkidi.

4. "Alor desberdinetan euskararen erabilera sustatzeko egitarauen azalpena eta ebaluaketa: eskolaz kanpoko ekintzak". Egilea: Paul Bilbao.

5. "Hamar urtetik beherako seme-alabak dituzten familietan ematen den euskararen transmisioa". Egileak: Leire Gisasola, Edurne Gutierrez eta

Estibaliz Gimon.

6. "Herrietako euskararen aldeko elkarteak: bilketa, ezaugarri nagusiak, bere ekarpena euskararen normaltzean". Egileak: Ainhoa Azkarate, Octavio Martinez, Beatriz Medrano eta Ainhoa Madariaga.

7. "Herrietako euskararen aldeko elkarteak: bilketa, ezaugarri nagusiak, beren ekarpena euskararen erabilpena normaltzean". Egileak: Nekane Goicoechea eta Mikel Etxaburu.

8. "Azken hogeita hamar urteotan egin diren soziolinguistikazko ikerketen bilduma eta azterketa". Egilea: Jone Miren Hernandez.

9. "Hamar urtetik beherako seme-alabak dituzten familietako hizkuntza transmisioa Durangaldean". Egilea: Nagore Gorostiza.

10. "Hizkuntza transmisio kanpainen eragina eta euskararen erabilpena". Egileak: Nekane Arratibel, Amaia Balda, Iñaki Garcia eta Jose Luis Gonzalez.

## Josu Pikabeak

*Lapurtera idatzia (XVII-XIX), bilakaera baten urratsak* doktorego tesia aurkeztu zuen Donostian. Ibon Sarasolaren zuzendaritzapean egina, "Apto cum laude" merezi izan du. EHUren eta Kutxaren artean argitaratu dute.

**Alberto Ruiz Capellan,** Santo Domingo de la Calzadako (Errioxa) fraile dominikoak 1801ean idatzitako euskal bertsoak topatu ditu Santo Domingoko katedraleko agiritegian. Bizkaieraz idatzitako Gabon kantak dira.

**Andolin Eguzkitza,** 40, idazle eta irakasle santurtziarrak *Mila urte igaro eta ura bere bidean* poema liburua argitaratu du Susa argitaletxean. Deustuko Unibertsitatean lizentziatua, Los Angeleseko UCLAn doktoregoa egina, Euskal Herriko Unibertsitatean irakasten du. Hau bere bigarren poema liburua da.

## Argitalpenak

### XX. mendeko euskal liburuen katalogoa

Joan Mari Torrealdai Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz egin duen lan handia. 1900etik 1992a bitartean kaleratu diren euskarazko liburuen 13.311 fitxa bibliografiko dakar, denak ere gaiaren eta dataren arabera sailkatuak. Hamazazpi urteko lanaren fruitu da.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia**  
Wellingtongo Dukea, 2  
01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gaztelera

Izen-deiturak: .....  
Helbidea: .....  
Herria: .....  
Kodea: .....  
Lurraldea: .....  
Tel.: .....

## Galdezka

### Gazteak eta euskara

**G.** Zer egin gazteen euskarazko gaitasuna hobetzeko?

**E.** Gazte elebidunen euskarazko gaitasuna hobetzea lehentasunetako bat da, baina hori ez da eskolan bakarrik lortzen. Eskolako klaseak euskaraz egiteko oinarrizko gaitasuna eman die, baina Klaseari ezin zaio eskatu gazte hauek euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago hitz egiteko gaitasuna bermatzea. Gaitasun hori gertuko komunitatean egiten den eguneroko erabilerak bakarrik berma dezake, hau da, euskaraz hitz egiteko trebetasuna, familian, lagunartean eta auzoan edo kalean euskaraz hitz eginez bakarrik lor daiteke.

Gazteek klasetik karpito egiten duten guztia euskaraz egin ahal izan dezaten aukerak eskainiz areagotuko da euskararen erabilera. Aukerak eskaintzea baino ezin dezakegu egin. Aldi berean, asko da aukera eskaintze horretan egiteko dagoena.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

### Nondik datoz euskal abizen konposatuak?

Ezagunak dira *Fernandez de Arroyabe*, *Diaz de Tuesta* eta *Lopez de Arriortua* bezalako deitura konposatuak euskaldunen artean. Gaur egun Araban agertzen dira batez ere, baina zein da abizen hauen jatorria?

Mikel Gorrotxategi, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko idazkariak azaldu digunez, deiturak XVI. mendean hasi ziren finkatzen, lau multzo nagusitan.

- Jatorria adierazten zutenak: *Gorrotxategi*, *Etxebarri*, *Elizondo*... Kantauri aldean gehien erabiltzen direnak. Kasu gehienetan baserri izena adierazten dute.

- Patronimikoak Europako hizkuntza gehienetan bezala, -ez bukaera erabiliz: *Perez*, *Lopez*, *Martinez*... Bukaera hori jatorriz latinarena izan arren, euskarak eman zion gaztelaniari.

- Adjetiboak. Besteak baino urriagoak, baina arrakastatsuak

hala ere: *Andia*, *Gartzia* (*Gaztea*)...

- Ezizenak: *Otsoa*, etab. luzea.

Askotan lehenengo biak batera erabiltzen zirela dio Gorrotxategik. Kantauri aldean, ordea, patronimikoak goiz hasi ziren desagertzen, herriak hain txikiak izanik nahikoa baitzen ponte izena eta baserri izena jendea izendatzeko. Araban eta Nafarroan, berriz, herriak handiagoxeak izanda, ez da nahikoa herria aipatzea, herrian *Martin de Gebara* asko egon daitekeelako. Araban batipat, eta uste baino beranduago, patronimikoak bere izaera galtzen du herri izenarekin batera geratuz. Nafarroan oster, bigarren zatia erortzeko joera egon da. Erabilera desberdin honen adibide garbia *Ochoa* da. Bizkaian eta Gipuzkoan soilik erabiltzen da, Araban berriz elkarturik: *Ochoa de Antezana*, esate baterako.

## ✓ Kontutan hartzeko

- **Expolangues**, munduko hizkuntzei buruz Parisen egin ohi den erakusketa otsailaren 4tik 9ra bitartean izango da. Euskararen erakusketa Eusko Jaurlaritzaren HPINek eta Nafarroako Gobernuaren HPZNek prestatu dute elkarrekin.

- **Jagon Sailaren Jardunaldiak.**

Euskaltzaindiaren sorreraren 75. urteurrenean prestaturiko ekintzen barruan, urtarrilaren 27, 28 eta 29an Jagon Sailak jardunaldiak izango ditu Bilbon. Gaia: hizkuntza kalitatea.

- **Ekin euskarari erakusketa.** Irunen izango da urtarrilaren 14tik 23ra bitartean eta Amurrión urtarrilaren 28tik otsailaren 6ra arte.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA  
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA  
SECRETARIA GENERAL DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA

